

**SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN  
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA**

**2017ko URTARRILAREN 31ko SAIOA**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamarrak eta berrogeita hamabost minutu direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea

Lorea Artetxe de la Fuente and., Bildu Udal Taldea

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1.- 2016ko AZAROAREN 24ko ETA AZAROAREN 29ko BILEREN  
AKTAK, EZOHIKO ETA OHIKOA HURRENEZ HURREN, IRAKURRI ETA  
ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Gai honi dagokion idazpuruan adierazitako aktak alde zuzenetik helarazi direnez, ez dira une horretan irakurri.

Ez denez gai honekin lotutako beste parte hartzerik egon, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du:

Bildu Udal Taldeko ordezkariak abstentzioa agertu du, gainerako guztiek, berriz, aldeko botoa eman dute. Horrela bada, onartu egin dira 2016ko azaroaren 24 eta 29ko saioko aktak, ezohikoa eta ohikoa hurrenez hurren.

**2.- 2016ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI  
EMATEA**

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak 2016ko ekitaldian izandako aurrekontuaren likidazioaren berri eman du eta alderdi azpimarragarrienak nabarmendu ditu, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik

aurretik helarazitako dokumentazioarekin bat etorritz.

Ez denez gai honekin lotutako beste parte-hartzerik egon, gaia jasotzat eman da.

### **3.- KONTSEILUBURUAK EGINDAKO PROPOSAMENA SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUETAKO SAIOAK JENDAURREKOAK IZAN DAITEZEN**

Kontseiluburu jaunak gaiari hasiera eman dio eta Si Se Puede Santurtzi Udal Taldeak honako proposamen hau zuzentzeko aurkeztutako idatziaren harira (zeinen berri saio honen aurreko egunean izan zuten) proposatu du gaia onartu gabe gera dadila berorren edukia sakonago aztertu eta horrela, Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo saioan hobeto jorratu dezaten. Horrez gain, eskatu du gai-zerrendari buruzko gaiari eragiten dieten dokumentazio edo proposamenak lehenago aurkeztu daitezela.

Urkiaga Alberdi jaunak eskatu du bere taldeak zuzentzeko egindako proposamena irakur dadila. Artezkaritza Kontseiluak proposamena onartu, eta testua oso-osorik irakurri da.

Kontseilukideek ez dute beste ezer esan eta arestian proposatu bezala, gaia jorratu gabe geratu da.

### **4. KONTSEILUBURUAREN GAIAK**

1.- Kontseiluburu jaunak kexa bati idatziz emandako erantzunaren kopia erakutsi du eta jakinarazi du kexa herritar batek jarria zela Serantes Kultur Aretoko txarteldegian ezin izan zuelako kreditu txartelaz ordaindu. Horrela bada, zuzendari jaunari hitza emanda, honek azaldu du txartel bidezko ordainketarako datafonia ez erabiltzea erabaki dela, txarteldegian horrela ordaintzeak ilara luzea sortzen duelako, batez ere saioen orduan; bestalde, datafonia erabiltzeak komisia ordaintzea dakar eta aste barruan zinemara jende gutxi joaten denez, ordaindu beharreko komisiok sarrerek uzten duen tarte txikia are gehiago txikituko luke. Gaineratu du garai batean baloratu zela beroriek antzerkirako sarreretak erabiltzea, baina gailua kudeatzeak sarrerak saltzea zailtzen zuela ikusi zen.

Urkiaga Alberdi jaunak adierazi du bankuak txartelak erabiltzeagatik kobratzen duen komisia erabiltzaileak hartu lezakeela bere gain eta horrela, galera handiagorik ez eragin. Bere ustez, txarteldegian ez da hainbeste jende pilatzen, ez behintzat horietako batzuek txartelaren bidez ez ordaintzeko lain.

Zuzendari jaunak esan du ordaintzeko beste bide batzuk ere badaudela, kutxazain eta webguneak adibidez, baina horiek erabiltzaileak komisia ordaintzea dakarrela.

Lucena Balda jaunak galdetu du ea txarteldegiko kudeaketa-kontratuan dirua erabiltzeagatiko kalte-ordainik kobratzeko kontzeptua azaltzen den.

Zuzendari jaunak erantzun dio esanez egon badagoela, baina enpresak hartzen duela kalte-ordain hori bere gain eta ez zerbitzua ematen duen langileak.

Urkiaga Alberdi jaunak esan du ez dituela argi ikusten sarrerak erosteko datafonia ez egotearen arrazoiak eta gaineratu du uste duela gaia berrikusi beharko litzatekeela eta erabiltzeko aukera eskaintzea birplanteatu.

2.- Kontseiluburu jaunak kontseilukideei Serantes Kultur Aretoak 2017rako aurreikusitako ikuskizunen egitaraua banatu die.

3.- Horrez gain, Kontseiluburu jaunak Gabonetako jardueren oroitza-txostenaren berri eman du. Batez ere ordutegi, parte-hartze eta behin betiko aurrekontuen inguruko datuak zabaldu ditu Artezkaritza Kontseiluko kideei banatutako agiri baten bidez.

## **5. GALDE-ESKEAK**

Urkiaga Alberdi jaunak bere taldeak Artezkaritza Kontseiluko saioak *streaming-en* bidez ematea eskatzeko aurkeztu duen proposamena irakur dadila eskatu du.

Beste gairik egon ez denez, Kontseiluburu jaunak batzarra amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta hogeita minutu direnean. Eta nik, idazkari eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.